


BUSTO IBILITARIA

Pablo Sarasateren bustoaren historiak 100 urte baino gehiago ditu. 1918ko irailean, Carlos Guerra arkitektoak pentsatutako Pablo Sarasateren omenezko multzo monumentala jarri zuten Iruñeko La Taconera lorategietan. Monumentua León Barrenechea eskultore gipuzkoarrak marmolez egindako biolin-jolearen busto batekin koroatu zuten.



Pablo Sarasateren monumentuaren inaugurazioa Iruñeko Taconera lorategietan, 1918ko irailaren 22an.
La Hormiga de oro (5/10/1918) BNE-Hemeroteka digitala





Pablo Sarasateren monumentua 1933an
Egilea: Julio Cía Úriz. Iruñeko Udal Artxiboa -
AMP001515

Multzoak elementu sinbolikoak aurkezten ditu, hala nola, Iruñea irudikatzen duen matrona bat, hiriko armaharriaren gainean makurtuta, dantzaren eta erritmoaren alegoriak, biolinak eta Sarasateren beraren partitura zatiak. Orduko prentsaren arabera, kostua 21.800 pezetakoa zen. Lehenengo harria 1918ko uztailaren 6an jarri zen solemneki eta urte bereko irailaren 22an egin zen inaugurazioa.



1964an bustoa Hilarión Eslava konpositore burlatarraren beste busto batek ordezkatu zuen, baina gainontzeko multzoa mantendu zen. Bitxikeria gisa, Pablo Sarasateren jatorrizko partiturak gorde ziren berari eskainitako ikur guztiekin batera.



Pablo Sarasateren monumentua 1964an aldamiokin prestatua desmontatzeko. Egile ezezaguna. Iruñeko Udal Artxiboa (Arazuri Bilduma) - UO110454



Hilarión Eslavaren monumentua 1964an Baltasar Soteras Elía Fonda. Iruñeko Udal Artxiboa - BSE003066



Sarasateren bustoa inauguratu berria zen eta bibolin-jole iruindarraren izena hartu zuen Musika Kontserbatorioko eraikineran eraman zuten fatxada apaintzeko, Agoiz kalean.



Kontserbatorioaren fatxada ca. 1963, plaka prestatuta, baina bustorik gabe.
Jatorri ezezaguna



2011tik aurrera ere bertan geratu zen, nahiz eta kontserbatorioa Mendebaldeko Musika Hiri berrira joan zen urte hartan. 2022ko urriaren 13an, bustoa Agoiz kaleko eraikinetik kendu zuten Kontserbatorio Profesionaleko eraikinera eramateko asmoarekin.

La Hormiga de oro (1918/10/5) BNE-Hemeroteka Digitala



Pablo Sarasate Kontserbatorioko fatxada 1965ean, bibolin-jolearen bustoarekin.
Egile ezezaguna. Iruñeko Udal Artxiboa (Arazuri Bilduma) U0020221





**Bustoaren eta egilearen informazioa zabaltzeko,
eskaneatu Bidi kodea:**

<https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/sarasate-navascues-pablo-martin-meliton/ar-107017/>

**Léon de Barrenechea Torralbari buruzko informazio
gehiagorako:**

<https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/es/barrenechea-torralba-leon-de/ar-774/>